

**EH Bildu eta EAJ-PNV
Aberri Egunean:
“Elkarlanean
aritzeko garaia da”**

**‘Etxealditik
Euskaraldira’
abiatzeko garaia**

Balkoiak, arnasmune eta topaleku bakarrak



noqua

jarraitu gure sare sozialak



facebook



Instagram



twitter



noqua

www.noqua.eus



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es



USURBILGO HAUR ESKOLA



2018, 2019 eta 2020 urteetan jalotako haurrei zuzendua

• ATE IREKIEEN EGUNA:

Gaur egungo egoera dela eta, aurrerago zehaztuko da.

• **MATRIKULA EPEA:** Apirilaren 2tik 30era
(apirilaren 6tik 19ra itxita)

• **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -16.30

• **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila

• **MATRIKULAZIOA eta MATRIKULAZIOA ONLINE:**

943 374061, haureskola@udarregi.eus eta
www.udarregi.eus webgunean

Helbidea: Kalezar, 15 20170 USURBIL

Informazio gehiago: 943 374061 edo haureskola@udarregi.eus

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu

Albiste iruditzen

Desinfekzio lanetan

Apirilaren hasieran, desinfekzio lanak areagotu egin zituen udal brigadak. Konpost-guneak, atez ateko zintzilikarioak eta paperontziak ere sakon garbitzen hasi ziren. Argazkian, langile bat Artzabalgo zintzilikario bat garbitzen.

Konfinamendu garaia hasi zenean, udal brigadak bere lanak egokitu behar izan zituen. Egunero derrigor egin beharreko zereginen gain, Covid19-ren kutsatze-arriskua gutxitzeko lanak eginen hasi ziren. Talde txikituta banatuta eta prebentzio neurriak hartuta aritzen dira lanean.



Konpost-guneak, paperontziak eta atez ateko zintzilikarioak (irudian) desinfektatzen dituzte.

Laburrean

Alkartasuna kooperatiban, gasolioa euro azpitik

Autoentzako gasolioak prezio hau du Usurbilgo Alkartasuna Kooperatiban: litroko 0,99 euro. Gertu txartelarekin ordainduz gero, litroko 0,965 euro. Bazkideentzat, litroko 0,960 euro. Urteak dira litroa ez zela euro azpitik.

Koronabirusari buruzko bideo argigarriak

Koronabirusaren inguruko argibideak emateko, Elhuyar zientziako lantaldeak bederatziz bideo-pilulako sorta prestatu zuen. Bideo horiek 30 hedabideetan eskaini ziren, baita noaua.eus web orrian ere. Oraindik ikusgai dituzue noaua.eus/bideoak/ helbidean.

Oharra berrogeialdian daudenentzat

Usurbilgo Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Udalari horren berri emateak, 669 87 40 22 telefonora deituta.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Dira: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Txaloak

Hirurogeita hemezortzi urte mundu honetan bizi ondoren ez nuen sekula pentsatuko horrelako egoera bat ezagutuko nuenik. Hasiera batean, urrutitik bezala eta eszeptizismo apur batekin ikusten genuen. Grippe baten antzeko zerbait ote zen, agureak bakarrik arriskuan egongo ote ziren eta abar. Orain badakigu: denok izan gaitezke pandemia bel-durgarri horren biktimak.

Irakurri berria dut Albert Camusen *La peste* agortu omen dela Frantziako liburu dendetan. Literaturako Nobel sari honen ustez, holako egoeretan jarrera antagonikoak agertzen omen dira: besteez aprobetxatzen direnak, pikaroak eta miserableak alde batetik; eta bestetik: eskuzabalak, solidarioak eta heroiak. Gehiengo osoa bigarren taldean sartzen da bere esanetan. Hain gara paradokikoak gizakiok. Ugaritasunean lelotu eta inozotu egiten gara askotan eta zoritxarrean, aldiz, zuhur eta enpatikoak bihurtu. Horrelako uneetan

gizarteak bere lehentasunak berrordenatzeari ekiten dio.

Egun hauetan ohitura edo errutina batzuk jarri dizkiot neure buruari eta serio heltzen diet. Funtsean: kirola (hamabi mila pausu ematea parrokiako lokaletan Munduko Osasun Erakundeak agintzen duen arabera), pianoa landu eta irakurri. Aste Santuko elizkizunetan katedralean parte hartzen dut organista bezala. Ertzainek “nora zoaz?” galdetzen didatenean eta J. I. Munillaren organista naizela esaten didatenean, tente jartzen dira eta ez didate egiaztagiririk eskatu ere egiten. Elizak badu oraindik halako itzal berezia, edo horrela dirudi behintzat. Nire parrokiako eliztarrek badakite elizkizunak telebistatik jarraitu ditzaketela nahi izanez gero. Bitxikeriak ere badaude elizako ospakizunei buruz: Balmasedako parroko bat kalez kale ibili zen jendea bedeinkatzen ertzainek etxera bidali zuten arte; Caceresen erretore bat elizaren teilatura igo zen, mahaitxo bat ipini eta bertan ekisaindu edo kustodia jarri herriarentzat Jainkoaren babesa eskatzeko. Donostiako

Altza eta Larratzoko J. Hernaez apaiz laguna, janaria biltzen ari da egun hauetan auzoko pobreen artean banatzeko. Berak ere otorduak prestatzen ditu lau familientzat, guztira dozena bat pertsona. “Gose diren ilegalekin zer egiten dugu? Horiek ere jan beharko dute bada?”. Aurrena Caritasera bidaltzen ditu, baina gainezka eginda dago erakunde hau. Beraz, bere lagunekin batera ekintza txalogarri hori antolatu du. Hau da niretzat Aste Santua bizitzeko modu txalogarriena, beste era horiek ere errespetatuz, jakina.

Egun hauetako gozamenik handiena zera da: balkoietatik eta leihoetatik datozkigun txalo zaparradak. Behingoz ez dira klaxonek, jendearen ibilerek edo marmar ozenek dezibelioak altxatzen dituztenak, txalo bero eta hunkigarri horiek baizik. Milioika pertsona zahar, gazte eta haur irteten gara balkoietara keinu sinboliko eta unibertsal hori egiteko. Horrela eskertu nahi ditugu erizainak, sendagileak eta osasun arloan lanean ari diren guztiak, askotan beren bi-

zia arriskuan jartzen dute eta. Txalo une hori da “anaitasun bainu bat, katarsia”, kazetari baten esanetan. Ostegun Santuan ari naiz gogoetatxo hau idazten; horiek bai, sinesdun nahiz ateo izan betetzen dutela Jesus nazaretarrak azken afarian apostoluei oinak garbitzerakoan eman zien agindua: “ikasbidea eman dizuet, zuek ere berdin joka dezazuen”.

Une honetan, edozein futbolari ospetsu baino garrantzitsuagoa bihurtu da osasun arloko erizain xume bat, ospitale bat misil bat baino premiazkoagoa. Baina benetan garrantzitsuena orain dator: alderdikeriak alde batera utzi eta elkartasunez eta zentzuz jokatzera. “Eginkizun bat daukagu: planeta hau leku egoki bat bihurtzea denok elkartasunean eta pozik bizi gaitezen”, dio Arsuaga paleontologoak. Bihar gauean (bazko gau-bailan) Haendelen *Alleluia* joko dut katedralean. Ea berehala iristen zaigun horixe kantatzeko une pozgarria. Animo, eutsi goiari eta bazko aldi on!

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Aritz Gorriti

Maddi Aburruza

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Juanjo Lertxundi: “Etxean giro osasuntsu bat sortzeko gakoak ematen ditugu”

Konfinamendua “hobeto eramateko animo eta laguntza behar baduzu, hemen gaituzu”. Juanjo Lertxundiren Facebook orrialdeak zekarren mezua. Eta mezuarekin batera, Coach Solidarioak web orrialdearen aipamena. Konfinamendua hasi zen egunean 60 bat kide batu ziren, “jendeari laguntzeko”. Ekimenak oso harrera ona izan duela aitortu digu usurbildar psikologoak.

NOAUA! Coach Solidarioak izeneko ekimena jarri duzue martxan. Jendeari laguntza eskaintzeko xedez elkartu zarete, ezta?

Juanjo Lertxundi. Egoera berri honen aurrean, jende asko kezkatuta dago. Fokua koronabirusean jarrita daukagu, baina badira kontuan hartu behar diren elementu gehiago ere: etxeko martxa, lana, seme-alabak, bikotea, gure osasuna... Lagundu asmoz, Estatu osoko 60 bat coach (trebatzaile) batu gara. Helburua da gure kezkak zeintzuk diren detektatu eta kezka bakoitzari dagokion neurria ematea. Dena bideratzen ikas dezagun. Beste modu batean esanda, gauzak lasaiago hartzeko tresnak eman nahi ditugu, norberak bere kezkak ahalik eta ondoen kudeatu dituzan.



Juanjo Lertxundi Coach Solidarioak taldeko kide da. “Gauzak lasaiago hartzeko tresnak eman nahi ditugu, norberak bere kezkak ahalik eta ondoen kudeatu dituzan”. Elkarrizketa osoa noaua.eus orrialdean duzue irakurgai.

JUANJO LERTXUNDI

Fokua koronabirusean jarrita daukagu, baina badira kontuan hartu behar diren elementu gehiago ere: etxeko martxa, lana, seme-alabak, bikotea, gure osasuna...

Zertan oinarritzen da zuen eskaintza?

J. L. Hasteko, bizi dugun egoerari ‘argazkia’ atera behar zaio. Denbora pixka bat dedikatu be-

har zaio foku bakoitzari, egun osoa koronabirusaren bueltan igaro gabe. Informatu egingo naiz, ados, baina nire arreta eta nire energia beste fokuetan ere ipiniko dut. Helburua da gauzak lasaiago hartzen ikastea eta etxean giro osasuntsu bat sortzea.

Gure etxean adibidez, eguerdian informatzen gara, eta gero deskonektatu egiten dugu. Arreta etxeko martxan ipintzen dugu. Lanean, ikastolako lanetan, etxeko martxan, aisialdian... Kirola ere egiten dugu.

“Beharrak ez dira denentzat igualak”

NOAUA! Zuen premia sentitzen duenak, zer egin behar luke zuekin harremanetan jartzeko?

Juanjo Lertxundi. International Coaching Community elkarreko kide gara. Interesatuta dagoenak email bat idatzi behar du gurekin harremanetan jartzeko. Idatzian bere izena eta bere egoeraren berri eman dezala. Eta datu horie-

kin, coach egokiarekin jarriko dugu kontaktuan. Hori da prozedura.

Behin hori eginda, Skype bidez jartzen gara harremanetan. Ordu bete inguruko saioak izaten dira. Lehen saioan kontaktuan jarri, momentuko ‘argazkia’ atera eta ekintza plan bat zehazten dugu.

Gero beharko balu, jarraipen bat egingo genioke.

Errezeta berberak ez du denentzako balio, ezta?

J. L. Lan pertsonalizatua da. Bakoitzak egoera propioa bizi du eta beharrak ez dira denentzat igualak. Nire egoera hau da, eta egoera ahalik eta ondoen eramateko zer egin dezaket? Hortan asmatu behar dugu. Eta hau pasa eta gero, ea zer nolako ikasketak ateratzen ditudan.

“Hau ere pasako da”

NOAUA! Gaitz honek denoi eragiten digu. Kontraesankorra dirudi, baina egoerari neurria hartzeko oso lagungarri izan daiteke premisa hori, ezta?

Juanjo Lertxundi. Ados nago. Arazo honek denoi eragiten digu. Zuri, niri, aberatsei, pobreei, zuriei, beltzei... Egoera globala da. Mundu guztia-erentzat berdin-berdina da. Berria da denontzat eta mundu guztia-eragiten dio.

Aipatu duzun ‘argazkia’ ateratzerakoan, kontuan hartzeko moduko osagaia da hortaz?

Hala da. Dena den, ez dugu ahaztu behar beste kontu bat. Uste dut gure ardura ere badugula honetan guztian. Dinamika ero batean bizi gara, egin egin eta egin, kontsumitu kontsumitu eta kontsumitu... Akaso jaitsi egin behar ko genuke erritmoa. Egoera honek aukera ematen digu gelditzeko eta ikusteko, zertan gabiltzan arlo guztietan: eremu pertsonalean, eremu sozialean... Edota nola jokatzen ari garen naturarekin.

Derrigorrez etxean geratu behar garenez, hausnartzeko tarte bat hartu beharko genuke. Birusaren kontu hau ere pasako da, dena pasatzen delako. Baina hau pasa eta gero: horrela jarraitu nahi al dut, betiko martxan? Edo zerbait aldatu nahi dut? Horretaz konturatzeko balio badu, asko hobetuko dugu maila pertsonalean eta baita maila sozialean ere.

Coach Solidarioak Harremanetarako:

coachsolidario@benpensante.com
www.juanjolertxundi.com

Udal tasen eta prezioen ordainketa epeak malgutasunez atzeratuko dira

Neurri ekonomiko sorta bat onartu berri du Udalak, koronabirusak sortutako osasun-larrialdi egoeraren harira: zenbait zerga, tasa eta prezio publiko ez kobratzeari eta atzeratzeari buruzkoak dira neurriak, eta dekretu bidez onartu ditu.

1. Hondakinen tasa edota terrazaren prezioa ez zaie kobratuko jarduera eten behar izan dutenei

Osasun-larrialdi egoerak iraun bitartean beraien jarduera eten behar izan dutenei udalak ez die eman ez duen zerbitzurik kobratuko. Esaterako, hondakinen tasa edota terrazaren prezioa ez zaie kobratuko jarduera eten behar izan dutenei, alarma egoerak iraungo duen epealdiari dagokionez. Aurrez kobratua izan balitz, itzuli egingo zaie dirua. Epealdiaren zati batean zerbitzua eman bada, eta beste zati batean ez, emandako zerbitzuari dagokion zatia soilik jasoko du udalak. Halaber, gainerako herritarrei dagokienez, kiroldegiko ikastaroak bertan behera gelditu direnez, eman ez diren aldiari dagokion dirua bueltatu egingo zaie. Kirold-



Udalak dekretu bidez onartu ditu neurri hauek.

UDALA

“Beraien jarduera eten behar izan dutenei Udalak ez die eman ez duen zerbitzurik kobratuko”

giko abonamenduen kasuan ere berdin: dena den, irekiera data jakitean egin ahal izango da bueltatu beharreko diru kopuruaren kalkulua. Haur eskolarekin, berdin.

2. Udal zerbitzuei dagozkien tasen eta prezioen ordainketa epeak malgutasunez atzeratuko dira:

Larrialdi egoerak eta konfina-

mentuak irauten duen egun kopuru berean. Mugatze horien amaiera data jakin orduko, egutegi fiskal berria eta luzatua onartuko du udalak, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, epe luzatu horiek zeintzuk izango diren jakinarazteko.

3. Udalak kobratzen dituen hiru zerga nagusienak:

-Ibilgailuen zerga:

Martxoaren 2an hasi zen borondatezko ordainketa epea, “eta larrialdi egoerak eta konfinamenduak eragindako etenaren egun kopuru berean luzatuko da ordaintzeko epea”. Zerga hori helbideratua zeu-

katelako kobratu zaien herritarrek ordainketa itzultzeko aukera izango dute, “hala nahi izanez gero, inolako gailentzerik gabe”. Hala egiten dutenek beraiek arduratu beharko dute, gero, epe luzatuaren azken eguna baino lehen dagokien zerga ordaintzeaz. Epea agortuta zerga ordaindu gabe balego, legokiokeen gailentzerik aplikatuko zaie.

-Ondasun higiezinaren gaineko zerga:

Ordaintzeko borondatezko epea uztailearen 1era arte zegoen irekita, eta atzeratu egingo da. Zerga hori borondatez ordaintzeko epealdi berria abuztuaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izango da.

-Ekonomia jardueren gaineko zerga:

Enpresa handienek soilik ordaintzen dute, “alegia, milioi bat eurotik gora fakturatzeko dutenek”. Zerga hori borondatez ordaintzeko epea ere atzeratu egingo da, larrialdi eta konfinamendu egoerak irauten duen egun kopuru berean. Amaiera data jakin orduko, egutegi fiskal berriaren bidez jakinaraziko da.

Atez ateko langileak: “Mila esker gure lana eskertzeagatik”

Osasun arloko profesionalak herritar askoren txaloak jasotzen dituzte egunero. Bestelako keinuak ere badira, oharkabean pasatzen direnak. Atez ateko biltzaileei egunotan iritsi zaizkien elkartasun mezuak, esate baterako. Manuel Manzanares Mercero Garbitaniako langileak ohar honen bidez eskerrak eman nahi dizkie “marrazkiak eta esker oneko notatxoak” uzten dizkieten herritarrei.

Herriko biztanleei zuzendua

Konfinamendua hasi genuenetik egun gutxira, zuetako askoren babesa jaso dugu. Garbitaniako langileontzat pozgarria izan da umeen marrazkiak eta esker oneko notatxoak topatzea gure lan jardunaldian.

Beraz, mila esker gure lana baloratu eta eskertzeagatik! Eutsi goiari, hau ere gaitzuko dugu eta!

Garbitaniako langileak.



Konfinamendua hasi zenetik hona elkartasun mezu ugari jaso dituzte.

Gaztelekua, Sutegi eta KzGunea, oztopoei aurre eginez

Badakigu konfinamenduak gure jardunean eta udaleko hainbat zerbitzutan ere eragina izan duela bete-betean. Hala ere, Gaztelekua, Sutegi eta KzGunea egoerara egokitu dira eta online zerbitzuak martxan dituzte.

Ateak itxita

NOAUA! Zuen jarduera presentziala eten egin behar izan duzue. Faltan botatzen duzue jendaurreko harremana?

Gaztelekua: Noski. Faltan botatzen ditugu gauza asko: elkarrekin proiektuak sortu eta egitea, solasaldiak eta eztabaidak, ping-pongeko partidak eta pikeak, elkarrekin jolastea, beraiekin egunerokotasuna konpartitzea, kontatzeko ekartzen dutena entzutea, elkarrekin barre egitea, musika entzutea, bihurrieriak, hartu-emanak orokorrean, erronkak, ...

Sutegi liburutegia: Bai noski, gure kasuan, jendearekiko harremanak asko aberasten gaituelako, bai profesionalki, eta bai pertsonalki.

KzGunea: Bai, egunero ibiltzen gara gure erabiltzaileei klaseak ematen eta kontaktua oso gertukoa dugu. Hala ere telefonoz hitz egin dugu beraiekin, jarduera etenda dagoen bitartean harremanak mantentzearen. Jendea eskertuta azaldu da.

Arreta, online

Internet eta telefono bidezko arreta eskaintzen duzue orain. Era horretan, zuen zerbitzuak baliatzen jarraitzeko aukera dute herritarrek, ezta?

Gaztelekua: Bai hala da. Aldaketa handia izan da, Gaztelekuan elkarrekin egotetik, soilik sarean bitartez komunikatzera. Guretzako ere, erronka da eta erronka honetan zerbitzua eskuragarri egotea beharrezkoa ikusten dugu eta nahi dugu, hau da ikusgai jarri nahi dugun xedea, gailuen beste aldean bada ere, egoten jarraitzen



Aurrez aurreko jarduerak eten egin dira. Gaztelekua, Sutegi Udal Liburutegia eta KzGunea egoera berrira egokitu dira eta online zerbitzuak ipini dituzte martxan.



GAZTELEKUA

“Faltan botatzen ditugu gauza asko: elkarrekin proiektuak sortu eta egitea, solasaldiak eta eztabaidak, elkarrekin jolastea, gazteekin egunerokotasuna konpartitzea...”

dugula. Presentzialki egon ez arren, elkarbanatzen eta bide-lagun izaten jarraitu nahi dugula helarazi nahi dugu, mezu hori behintzat zabaldu eta txertatzea. Pixkanaka gazteekin sarean bitartez konektatzeko bide eraginkorrenak bilatzen eta finkatuz dihardugu, ideiei bueltak emanez, ez da erraza, egoera berria da denontzat, hala ere guretzako aukera polita da sare-sozialen esparruan gure helburuak ere garatu eta aurrera eramaten ikasteko. Sare-sozialak oso presente daude gazteen munduan eta pixkanaka ere, helduen egunerokotasunean, batez ere orain bizitzen ari garen egoera honetan. Nerabeekin ezezik, guraso eta beste eragile batzuekin ere, harremanetarako bidea irekita jarraitzen duela adierazi nahi dugu.

Sutegi liburutegia: Hala da, uste baino pertsona gehiagok jotzen du guregana Whatsapp-eraz eta sare sozialak bidez (telefono finkoa ez baitauekigu

eskuragarri), eta, jende askori eLiburutegirako sarrera bideratu eta azaltzen diogu.

Momentu honetan, etxean ditugun liburuak irakurtzeaz gain (oso ona hori ere!), digitalki irakurtzeko aukera ematen du eLiburutegiak. Laguntza behar duenak, guregana jo dezake Whatsapp bidez (688625477), Twitter bidez (@usurbib), Facebook bidez (@sutegi05) edo Instagram bidez (@sutegi05).

Gainera, arestian aipatutako bide horiek guztiak baliatuz, joan den urteko liburu eta pelikula mailegatuenean zerrendak hedatzen ari gara, horietako hainbat eLiburutegian eskuragarri daudenak. Beste gomen-dioren bat edo beste hedatu(ko) dugu.

KzGunea: Denbora daramagu urruneko formakuntza sustatzen, beraz KzGunearen eskaintza, arlo horretan, bermatua dago. Bestalde, aurrez aurreko formakuntzako erabiltzaileak banan bana deitzen ari gara gure tutoretza zerbitzua telefonoz eskaintzeko. Hau da; edozein zalantza argitu eta berrogeialdiko egun hauetan sortzen zaizkien arazo teknologikoei irtenbidea emateko.

Konfinamenduaz

Maila pertsonalean, nola daramazue konfinamendu garai hau?

Gaztelekua: Egunak ditugu.

Hasiera batean oreka (fisikoa, emozionala, mentala, ...) mantentzeko moduak bilatzen. Errutinak guztiz aldatzea, beste esparruetan ere eragina izan du eta hau dela eta, garrantzitsua ikusi dugu, ongizatea emango diguten bide berriak frogatzea: izerditzeko eta bihotzari behar duena eman zumba klaseekin, otordu eta lo ordutegiak mantentzea, balkoi-ateratzea eguzki izpien D bitamina hartzea, gustatzen zaizkigun gauzak egiteko dugun denboraz disfrutatzea... Pixkanaka, egoera berri honi lekua egin diogu gure egunerokotasunean. Hala ere, beste batzuen artean, naturarekiko kontaktuaren falta sumatzen dugu: txangoak mendi eta basoetan barrena eta itsasoko olatuekin jolastea. Lagunekin musika kontzertuak ikustea eta Gaztelekuan gazteekin egotea baita ere. Guztiontzako animoak bidaltzen ditugu! Oraindik animoa ez zaigu falta eta.

Sutegi liburutegia: Ba denok bezala, etxean, etxeokoin, eta gurasoengan arreta jarritz; eta, noski, liburutegiko erabiltzaileei ahal den zerbitzu hobere-na eskaini nahian.

KzGunea: Etxetik lana egin litekeela ikusi eta erronka berrietara egokitze ahalmena dugula konturatu gara eta gainera gure postu telematikoa martxan jartzeko balio izan du.

EH Bildu eta EAJ-PNV, Aberri Egunean: “Elkarlanean aritzeko garaia da”

Usurbilgo EH Bildu eta EAJ-PNV alderdiek adierazpen instituzional bat plazaratu zuten apirilaren 10ean. Etxeetako balkoitan ikurrinak jartzera gonbidatu zituzten herritarrak. Hala nola, “beste zenbait eragilek Aberri Egunerako deitutako ekimenetan parte hartzea” deitu zituzten. Azkenik, minutuko isilunea egiteko proposamena luzatu zuten, “hurbilekoak galdu dituzten eta nahi bezala agurtu ezin izan dituzten familien doluarekin bat egiteko”. PSE-EE kritikoa agertu zen adierazpenarekin.

Usurbilgo Udalak apirilaren 10ean eman zuen akordioaren berri. EH Bildu eta EAJ alderdiek elkarlanean aritzeko garaia dela aldarrikatu, Covid19 birusak hildakoen senitartekoei doluminak helarazi eta osasun eta zaintza arloko langileei eskerrak eman nahi zizkieten. Aberri Egunari begira, udaletxe-ko ikurrina masta erdian jarri eta minutu bateko isilunea egitera deitu zituzten herritarrak. Hauxe da, hitzez hitz, EH Bildu eta EAJk adosturiko idatzia:

Apirilak 12, Aberri Eguna 2020: Usurbilgo Udalaren adierazpen instituzionala

Igandean ospatuko dugun Aberri Eguna egoera oso berezian datorkigu, izan ere, konfinamendu betean aurkitzen da euskal jendartea, eta, dagoeneko, Euskal Herriaren luze zabalean bere arrastorik gordinena utzi du gaitz honek: mila herritar inguru zendu dira, gaitzak jota daude milaka herritar, eta beste milaka herritarrek euren lanpostua arriskuan dute. Halaber, osasun krisi honen ondorioz, gure herriko egitura ekonomikoa gogor kolpatzen ari



Aberri Egunean, udaletxe-ko ikurrina masta erdian jarri eta minutu bateko isilunea egin zuten.

EHBILDU, EAJ-PNV

“Elkarlanean aritzeko garaia da: batera eta auzolanean. Norabide horretan, pasarte ilun hau atzean utzi eta gure herriarentzat etorkizun hobea lortzeko prestutasun osoa dugu”

da. Mundu mailako krisi humanitario honek, ondorio sanitarioez gain, aurreikusi ezin ditugun beste hainbat ondorio ere eragingo ditu beste hainbat alorretan, besteak beste, gure bizimodu eta ohituretan. Edonola ere, espero dugu politikaren alorrean orain arteko egiteko moduetan ere aldaketak eragitea.

Ama lurraren jasangarritasuna eta gizaki ororen duintasuna eta zorientasuna mundu mailako lehentasun bilakatzea espero dugu, baita gure aberriarentzat ere. Inoiz baino beharrezkoagoa da Euskal Herriaren aitortza defendatzen dugunon aldetik hausnartzea oraindik aitortu gabeko herri txiki honek munduan jokatu duen papera zein izan behar duen: nazio aitortza ez da soilik esparru politikoan gauzatu beharreko helburua, izan ere,

nazio izaera gero eta gehiago lotzen da komunitatearen garapenarekin eta haren jasangarritasunarekin, autoeraketa eta dinamika sozial eraldatzailen arteko lankidetzarekin, nortasuna eta aniztasuna bateratzearekin. Oinarrizko eskubideak bermatzea, pertsonen arteko berdintasuna eta elkarrenganako errespetua sustatzen dituen komunitatea da nazio eraikuntzaren oinarria. Horregatik, oinarrizko eskubideen bermea, pertsonen arteko berdintasuna eta elkarrenganako errespetua sustatzen dituen komunitatea aldarrikatu nahi dugu 2020ko Aberri Egun berezi honetan.

Erabaki guneak erabakiak gauzatu behar diren lurraldeetatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta eraginkortasun handiagoz erantzun zaie egoera zailenei. Zer izan nahi dugun erabaki nahi dugu, alboko herrialdeekin zer-nolako harremanak izan nahi ditugun erabaki nahi dugu, bai eta krisi honetatik nola atera eta utziko dituen ondorio larzarriekin erantzuteko ahalmen politikoa izan nahi dugu. Herri honek badu horretarako nahikoa sen demokratiko.

Osasun krisia amaitu amai-

tuko da, bidean heriotza asko eraginda, tamalez. Krisia amaitutakoan, egoera sozial eta ekonomiko latzari aurre egin beharko diogu, eta egoera horrek eskatuko dizkigu abertzaletasuna eta ahalegina. Herri plan erraldoi bat jarri beharko dugu abian, krisi honek familietan, enpleguan eta enpresen jardueran dituen ondorio izugarriak arintzeko.

Elkarlanean aritzeko garaia da: batera eta auzolanean. Norabide horretan, pasarte ilun hau atzean utzi eta gure herriarentzat eta herritarrentzat etorkizun hobea lortzeko prestutasun osoa dugu. Horregatik, Aberri Egun honetan eta egoerak eskaintzen dituen aukera urriak profitatuaz,

Usurbilgo Udalak, honako hau adierazten du:

I.- Doluminak helarazten dizkie senitartekoen artean edota lagunartean galera pertsonalak izan dituzten herritarrei.

II.- Esker hitzak baino ez ditu osasun eta zaintza arloko langileentzat eta egoera honetan beren onena ematen ari diren herritar guztientzat.

III.- Udaletxe aurreko ikurrina masta erdian jarriko du.

Halaber, dei egiten die herritarrei:

I.- Eguerdiko 12:30ean minutu bateko isilunea egitera eta hurbilekoak galdu dituzten eta nahi bezala agurtu ezin izan dituzten familiekin dolua partekatzea.

II.- Ikurrinak jartzera etxeetako balkoietan.

III.- Eta beste zenbait eragilek Aberri Egunerako deitutako ekimenetan parte hartzea.

EH Bildu Usurbil eta EAJ-PNV Usurbil.

PSE-EE-k planteamendu ideologikoak baztertze eskatu die EH Bildu eta EAJri

Usurbilgo PSE-EEK kritikatu egin zuen bi alderdi abertzaleen arteko akordioa eta herrian dagoen batasuna ez apurtzeko eskatu zion EH Bilduri. Planteamendu ideologikoak baztertu eta Covid19ko biktimen aldeko elkartasun adierazpen bat lantzeko eskatu zion Francisco Suárez zinegotzi sozialistak EH Bilduri.

Usurbilgo EH Bildu eta EAJ-PNVren arteko adierazpen bateratua argitara eman zen egunean bertan, alderdi sozialistak bere iritzia jakinarazi zuen prentsa ohar bidez. Lehenik, elkartasuna azaldu nahi zien Covid19ko biktimei eta euren senideei. Era berean, txalo handi bat eskaini “osasun arloko profesionalei, saltokietako langileei, garraio publikoko gidariei eta taxistei, garbitzailerei, baserritarrei, arrantzaleei eta abar luze bati” egunotan egiten ari diren ahaleginarengatik. Hala nola, “herritarrei, etxeetan konfinatuta daudelako euren eta denon hobeharrez. Beraiek ere gure txalorik sentituena merezi dute”.

Leial izateko garaia

Aurrekaririk gabeko egoera ho-



Eskubitara, Francisco Suárez zinegotzi sozialista. Covid19ko biktimen aldeko elkartasun adierazpen bat lantzeko eskatu dio PSE-EEK EHBilduri.

PSE-EE USURBIL

Adierazpen instituzional berri bat egitea eskatu zion PSE-EE-k EHBilduri, planteamendu ideologikoetatik urrun. Egoera honetan planteamendu horiek ez dutelako inolako zentzurik

nen aurrean, Francisco Suárez zinegotzi sozialistak uste du modu leialean lan egiteko garaia dela, “batasuna erakutsiz”. Zoritxarrez dio, “EH Bilduren udal gobernuak adierazpen instituzional bat idatzi du, Aberri Eguna ospatuz eta Covid19-ko biktimei doluminak agertuz”. Eskubiak eta muturreko eskubiak “hildakoen inguruan egiten duten erabileraren aurrean eskandalizatzen garen moduan,

EH Bilduri hau esan beharrea gaudela: horrela ez”.

Ikurrina, masta erdian

Usurbilen dagoen batasuna ez apurtzeko, adierazpen instituzional berri bat egitea eskatu du PSE-EEK. “Covid-19ko biktimen alde eta planteamendu ideologikoetatik urrun; egoera honetan planteamendu horiek ez dutelako inolako zentzurik”. Horretaz gain, pandemia amaitu arte ikurrina masta erdian jartzea eskatu du alderdi sozialistak. “Egun hobekak iristean, eta iritsiko dira, ez gara denok egongo eta hori izango da aurrez aurre izango dugun zauririk handiena. Une horretan gure herritarrek epaituko gaituzte; bateratu eta konfiantza erakusteko garaian batzuk ez ote zuten zatiketa aukeratu”.

Familiako baratzeetan lan egiteko aukera

Eusko Jauraritzak jasotako azken irizpideei jarraiki, familiako baratzeetan lan egin daiteke baina beti ere behar-beharrezkoa den denbora tartean eta Osasun Agintaritzak ezarritako neurriak beteta, Udalak ohartarazi duenez.

“Elikagaiak jaso, mantentze-lanak egin eta lurra erein zein landatu aurretiko pres-taketa-lanak egin ahal dira, baita lurra landatu, erein, ureztatu eta ongarritu ere”. Baratzeetan ezingo da inolako ekitaldi edo ospakizunik egin. Bigarren bizilekuko baratzeak ez dira baimen hone-tan sartzen.

Txandakako sistema

Usurbili dagokionez, Agereazpiko udal-baratzeetako erabilera arauak ere irizpide horietara egokitu ditu Usurbilgo Udalak. “Hala, toki komunak itxita egon arren, txanda sistema bat ezarri du, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko; ohiko bideetatik jakinarazi zaizkie arau zehatzak”, ohartarazi du Udalak ohar bidez.

EAJ: “Pandemiaren aurka lehen lerroan ari diren guztiei, eskerririk asko”

EAJren Usurbilgo udal taldeak esker ona adierazi nahi die pandemiaren egoera larriari lehen lerroan aurre egiten ari diren pertsona eta erakunde guztiei. “Lehenik, bat egiten dugu gaixotasun honek sortu dituen hildakoen senideen minarekin. Eta gure babesa, egun hauetan ospitaletan, egoizetan, azoketan, garraioetan eta guztion osasunaren zainketan eta eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren hornidura zerbitzuetan ari diren gizon-emakumei. Ondo merezi-

tako txaloak dira egunero jasotzen dituzuenak”.

Babes osoa udal gobernu taldeari

Testuinguru honetan, Eusko Jauraritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten ari diren ahalegina nabarmendu nahi du EAJ-k. “Garbi daukagu birusari aurre egitea dela gure erakunde nagusien lehentasun osoa eta horretara bideratu direla bitarteko guztiak. Osakidetako ospitale sare publikoa egokitu da eta pribatuekin lan partekatua bultzatu da, ahalik

eta modu eraginkorrean pandemiari aurre egiteko”. Ildo berean, Foru Aldundiko Gizarte Politikako departamentuak neurriak hartu ditu, protokolo berriak ezarri eta Donostian lehen Gurutze Gorriko ospitalea zena Covid-19an positiboa eman duten egoiliarak artatzeko prestatu da”. Baliabideak ere nabarmen handitu direla azpimarratu nahi du alderdi jeltzaleak. “Halaber, gure babesa eman diogu eta emango diogu Usurbilgo Udalari birusaren ondorioak sortu ditzakeen egoera

larriari aurre egiteko garaian”.

Sirena-hotsekin kritikoa

EAJ ordea, kritikoa agertu da egunotan Usurbilen entzun diren sirena-hotsekin. “Pandemiarekin zerikusirik ez duen Zubietako erraustegiaren aurka eguneroko sirena zarata” antolatu izana ez du gustuko eta “besteok entzun eta jasan behar izatea” kritikatu du. “Ez da birologoa edota epidemiologoa argia izan behar sirena zaratarekin ez zaiola aurre egingo birusari”.

Informazioa eta aholkularitza, geldialdi ekonomikoa arintzeko

Beterri-Buruntzako udalek arreta zerbitzua zentralizatu dute. Covid19 izurriteak ekarri duen geldialdia arindu asmoz, informazioa eta aholkularitza eskainiko diete eragile ekonomikoari. Web orrialde bat zabaldu dute propio.

Konfinamenduak eragin zuzena izan du ekonomian. “Beterri Buruntzako udalak kontziente gara herritarrengan eta eskualdeko eragile sozial eta ekonomikoengan zaurgarritasun egoera handitu egin dela, eta ziurgabetasun egoera areagotu”.

Informazioa eta aholkularitza
Krisiaren eragina gutxitze aldera, Beterri-Buruntzako udalek zerbitzuak zentralizatzea adostu dute. Enpresa eta autonomo guztiei zuzenduta dago eskaintza. “Eskura ditugun gaitasun guztiekin eta gainontzeko administrazioekin batera (Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta tokiko instituzioak)” arituko dira. Etortzearen diren neurri publikoen nahiz diru-laguntza deialdien berri emango dute.



Krisiaren eragina gutxitze aldera, Beterri-Buruntzako udalek zerbitzuak zentralizatzea adostu dute. Enpresa eta autonomo guztiei zuzenduta dago eskaintza. Web orrialde bat zabaldu dute horretarako: beterriburuntza.eus

DEIALDIAK ETA LAGUNTZAK

“Buruntzaldeko udal teknikariak elkarlanean, beterriburuntza.eus web orrialdeko informazioa eguneratzen joango dira”

Eta horiek eskualdean aktibatze bideak erraztuko dituzte, “informazioa eta aholkularitza eskainiz”.

■ Autonomoen kasuan, esteka hau dute eskura: beterriburuntza.eus/covid-19/autonomoak/

■ Enpresen kasuan, esteka honetan: beterriburuntza.eus/covid-19/enpresak/

■ Partikularren kasuan: beterriburuntza.eus/covid-19/partikularrak/

Xehetasunak, web orrialdean

Arreta zerbitzua nahiz laguntzen inguruko informazio guztia beterriburuntza.eus web orrialdean topatuko duzue. “Udal bakoitzeko teknikariak elkarlanean, web orrialdeko informazioa eguneratzen joango dira”.

Eskaerak bideratzeko prozedura

Eskaerak bideratzeko bi modu daude. Beterri-Buruntzaldeko beterriburuntza.eus web orrialdean galdetegi bat ipini dute. “Helburua da eskaera guztiak jaso eta banakako erantzuna ematea”. Prentsa-ohar bidez aditzera eman dutenez, 24 orduko epean jarriko dira interesatuarekin harremanetan.

Web orrialdeaz gaiz, interesatuek bi telefono zenbaki dituzte eskura. “Zalantza guztiak argitu eta behar bezalako aholkularitzara bideratzeko”.

■ Telefono zenbaki orokorra: 943 304 221 (8:00-14:00).

■ Telefono zenbakia Covid19: 699 692 175.

“Gure helburua da ekonomia ahalik eta azkarren berraktibatzea”

Arreta zerbitzu honen bitartez unean uneko eskaerei erantzun nahi zaie. Bide batez, jasotako informazioaren kudeaketa “oso baliagarria izango zaigu geroko ondorioei aurre egiteko: behar kolektiboak detektatu eta eskualde

mailako estrategia bateratua eraikitzeko”, Beterri Buruntzako udalek aditzera eman dutenez. “Gure helburua ekonomia ahalik eta azkarren berraktibatzea da”, eta egoera honek guztiak ahalik eta eragin sozial gutxiena eragitea eskualdean.

Buruntzaldean ez da Garpent Agentziarik oraindik, baina Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek agentziaren pareko zerbitzua eskaintzen dute.

Autonomoei eta enpresa txikiei hobariak aplikatuko dizkie Foru Aldundiak

Urteko lehen hiruhilekoari dagozkion autolikidazioak eta BEZ aitortpenak aurkezteko epea ekainaren 1era arte atzeratu du Foru Aldundiak. “Autonomo, mikroenpresa eta enpresa txikiei, baita eta beste zergadun talde batzuei ere, irabazi asmorik gabeko elkartei esaterako”. Honela, zergadunen kolektibo honek BEZaren eta PFEZaren atxikipenen lehen hiruhilekoko ordainketak atzeratu ahal izango ditu. Beste zerga betebeharrak ere ekainaren 1era arte luzatuko zaizkie kolektibo horiei:

■ Aurkezpen epea martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarte luzatuko da aitortpen informatiboen eta laburtzailleen kasuan.

■ Aurkezpen epea martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarte luzatuko da autolikidazio eta aitortpen ez-aldizkakoak aurkeztea.

Neurri hauek guztiek “225 milioi euroren zerga bilketa atzeratzea ekarriko dute”, gipuzkoa.eus web orrialdean irakurri dugunez.

800.000 euro, Txoke Plana indartzeko

Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 791.000 euroko diru partida onartu zuen martxoaren 31n, gizarte politika arloan martxan duen Txoke Plana indartzeko. Neurri honek “arreta psikologikoa, garbitegi zerbitzuak, garbiketa intentsiboak eta material berriaren erosketak ditu helburu”.



Markel Olano, Gipuzkoako egoitzetan banatzen ari diren babeserako materiala ikuskatzen.

Larrialdi egoerari aurre egiteko neurri sorta

Hilabete hasieran, Foru Aldundiko ordezkariak udal ordezkariekin bildu ziren telematikoki, tartean, Usurbilgo alkatearekin. Bizi dugun egoeran Udalak egiten ari diren lana aitortu eta eskertu zuten Aldundiko agintariak; batez ere egoera zaurgarrian diren kolektiboak laguntzeko egiten ari diren ahalegina. Alkateen proposamenak jaso zituen Aldundiak. Erakundeen arteko koordinazioa indartzea nahi dute, osasun krisiak berarekin dakarren krisi sozial eta ekonomikoari aurre egiteko. Eta zuhurtziaz jokatu nahi dute baita, datozen hila-beteetan diru-bilketa jaitsi eta baliabideak murriztea gerta daitekeelakoan.

Etor daitekeenari aurre egiteko, 56 neurri biltzen dituen plana plazaratu du Aldundiak adineko zentroetan bizi diren 7.000 gipuzkoarrentzat, birusaren hedapena eten, kasuak diagnostikatu direnetan gaitzari eutsi, baliabideak indartu eta kudeaketa gardena sustatzeko.

Laguntza neurriak

Enpresa txiki zein ertainei eta



Eider Mendoza foru bozeramalea, neurrien berri ematen.

AITORPENA

“Bizi dugun egoeran, Udalak egiten ari diren lana aitortu eta eskertu zuten Aldundiko agintariak”

autonomoei erreparatuta, ondoko neurriak iragarri dituzte:

- 300 milioi euroko neurri fiskalak.
- Urteko lehen hiruhilekoari dagozkion autolikidazio eta aitortpenen aurkezpena ekainaren 1era arte atzeratzea autonomo, mikroenpresa, enpresa txiki eta irabazi asmorik gabeko elkartei.
- Enpresa txikietan telelana ezartzera bideraturiko gastuak

laguntzeko 450.000 euroko lerroa.

- Jarduera ekonomikoa bultzatzeko diru-laguntzen programetan bete beharreko baldintzak malgutzea.
- Elkargik berariazko mailegu lerro bat abiaraztea.
- Diru-laguntzak eskuratzeko, online plataforma bat sortzea garapen agentziekin batera.
- 100.000 euroko zuzkiduradun diru-laguntza lerro berria, zerbitzu turistikoaren sektoreko autonomo eta enpresa txikientzat.
- Bertan behera geratutako ekitaldi, azoka edo jarduerak finantzatzeko Aldundiak hartutako konpromisoak betetzea.

Errenta aitortpena aurkezteko epea luzatu egin dute

Bizi dugun konfinamendu egoeratik 2019ko errenta aurkezteko epea hilabetez luzatzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak, uztailaren 29ra arte.

- Autolikidazio proposamenak jaso zituztenek apirilaren 6tik dute proposamena onartu edo atzera botatzeko aukera.
- Aurrez aurreko aukera bertan behera utzi dute, mekanizatua delakoa. Telefonoz edo Internet bidez soilik egin ahal izango da aitortpena.

Errenta Aitortpena euskaraz egiteko kanpaina

UEMAk, hainbat udalek eta erakunde publikok “errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpainari eustea erabaki dute, herritarren eta administrazioaren arteko harremanak euskaraz izan daitezen”.

Iaz 950 usurbildarrek egin zuten euskaraz

Eustaten arabera, euskararen ezagutza %72koa da Usurbilen. Datu hori ez dator bat, ordea, errenta aitortpenekoekin: iaz,

950 lagunek egin zuten errenta aitortpena euskaraz, eta 2.281ek gaztelaniaz.

‘Ogasunarekin euskaraz’

UEMAk eta Udalak bezalaxe, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere kezka du gai honen inguruan eta lau urterako egitasmoa abiarazi du: 100.000 zerbadun ogasunarekin euskaraz.

Gipuzkoako Ogasunari buruzko informazio gehiago:

943 113 000
labur.eus/ogasuna

24 langabetu gehiago martxoan

Covid19-aren eragina ekonomian ere islatzen hasia da. Horren lekuko, martxoko langabezia datuak. Estatuko Enplegu Zerbitzuaren arabera, 245 langabetu zituen joan den hilabetean Usurbilek; otsailean baino 24 lagun gehiago. Antzeko datua 2019ko otsailean erregistratu zen azkenekoz; orduko hartan 247 langabetu zituen udalerri honek. Momentuz halere, langabetu kopurua gogor kolpatu zuen hamarkada hasierako krisialdi garaiko datuetatik urrun gara. 2014ko otsailean, 385 langabetu erregistratu ziren Usurbilen, Estatuko Enplegu Zerbitzuaren arabera.

Eskualdean ere, gorantz

Usurbilen bezala, gorantz egin du baita langabeziak Beterri-Buruntzako gainetako udalerrietan ere. Otsailean 2.924 ziren eskualdeko langabetuak, 330 gehiago martxoan, 3.254 langabetu guztira.

Gipuzkoan ere gorantz langabetu kopurua; otsailean 31.025 ziren lanik gabe zeuden herritarrak. 3.072 lagun gehiago martxoan, guztira 34.097.

Emakumezko langabetu gehiago

Gorakada orokorrak orain arteko joerak bere horretan mantentzen ditu halere Usurbilen. Langabetu gehienak emakumezkoak dira, 134; 111 gizonezkoak. Langabetuen erdia baino gehiago-132- 45 urtetik gorakoak.

Kontratazioak

Aldiz, iragan hilabetearen erregistraturiko 259 kontratuetatik 154 gizonezkoenak izan ziren, 105 emakumezkoenak. Ia kontratu denak, 235, aldi baterako. 216, zerbitzueta.

Inoiz baino ikurrina gehiago





Argazkiak: Ibai Arrieta. Argazki bilduma osoa noaua.eus/galeriak/ helbidean ikusgai.

Sagardo Egunik gabeko urtea izango da

Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak aurreko astean zabaldu zuen albiste. Aurten ez da Sagardo Egunik ospatuko. Dena den, “datorren urtean itzuliko gara eta kolosala izango da”, adierazi zuten prentsa-ohar bidez.

Covid-19 birusak eragindako egoeraren aurrean, ez da ospakizun publikorik antolatze-ko modurik. Ezta girorik ere. Salbuespen neurriak bete-betean jo du Sagardo Egunaren antolaketan. “Tamalez egun bizitzen ari garen egoera zail honen aurrean, nahiz eta denbora pasatzen utzi dugun ea guztia lasaitu eta hobetuko ote zen esperantzaz, hainbat buelta eman ondoren, aurtengo Usurbilgo Sagardo Eguna bertan behera uztea erabaki dugu”.

Gizartea orohar ez da egoera samurra bizitzen ari, dio Sagardo Egunaren lagunak



Azken ordura arte zain egon dira baina, egoerak hala behartuta, etsi egin behar izan dute azkenean: “Sagardo Eguna bertan behera uztea erabaki dugu”.

SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK ELKARTEA

“Gera gaitezen etxean eta goazen guztion artean borroka hau irabaztera.

Datorren urtean itzuliko gara eta, bai, kolosala izango da!”

elkarsteak. “Gauzak hobetuz doazen arren oraindik ere

asko geratzen da guztia amaitzeko, baina ez ahaztu ekaitz guztien ostean barealdia etortzen dela eta esku zabalik hartuko dugula”.

Bitartean “gera gaitezen etxean eta goazen guztion artean borroka hau irabaztera”, ohartarazi dute Sagardo Eguneko antolatzaileek. “Datorren urtean itzuliko gara eta, bai, kolosala izango da!”.

Zapi koadrodunak balkoietan

Kale eta auzoak elkar laguntzeko gune seguruetan bilakatu behar ditugula dio Herritarren Babes Sareak, bereziki konfinamendu honetan egoera zaurgarrienean diren herritarrentzat. “Beharra duten horientzat, espazio seguruak sortuz, bizilagunen arteko eraso eta epairik gabekoak eta eraso polizialen aurrean bizilagunon arteko babesa eskainiz”. Babes Sareak bide batez, eskerrak eman nahi dizkie usurbildarrei, “osatu dugun sareagatik”.



Herritar sareak kartel hau ateratu du.

‘Etxealditik Euskaraldira’ ekimena abiatzera doa

Etxean nahiz etxetik egunotan ditugun hartuemanetako hizkuntza ohituren inguruan hausnartu eta euskararen erabilera sustatzera dator “Etxealditik Euskaraldira” ekimen berria. Ostiralean abiatuko da eta astebetez luzatuko da.

Urte amaierako 2. Euskaraldiaren prestaketa saioa izango da, eta “euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzea” izango du helburu nagusia. Etxean ahotan hartzen dugun hizkuntzaren garrantzia azpimarratzen dute. “Etxekoe-kin gure hizkuntza ohiturak aldatu edo finkatzen baldin baditugu, askoz errazagoa izango zaigu kalera irteten garenean horiek mantentzea edo Euskaraldira iristen garenean ere gure hizkuntza ohiturak aldatzea edo finkatzea”.



Euskaraldiko batzordetik proposamen hau luzatu dute: “leihoetan edota balkoietan koloretako puntu bat jartzera gonbidatu nahi ditugu herritarrek”.

Hurbilekoekin dugun hartuemanaz

Euskal Herri osora hedatuko den ekimenarekin bat egin du Usurbilek ere. “Konfinamendu egoeran elkarrekin hitz egiteko aukera, gogoia eta nahia dira nagusi, eta, harreman gehienak hurbilekoekin direla jakinda, iruditzen zaigu eremu hurbilenean erabiltzen dugun

hizkuntzaren gainean pentsatu eta aldaketak egiteko pausoa emateko aukera aproposa izan daitekeela”.

Parte hartze bideak

Euskaraldia Usurbil herri batzordetik “etxeetako leihoetan edota balkoietan koloretako puntu bat jartzera gonbidatu nahi ditugu herritarrek”. Susa-

na Martinek Euskaraldia Usurbilen Youtubeko kanalean sortze lanotarako proposamen bat egin du. “Era berean, ekimenak irauten duen bitartean, dei egiten diegu herritarrei sortutako bideoak edo ateratako argazkiak sareratzeko. #EtxealditikEuskaraldira eta #Usurbiltraolak erabil ditzagun herrian sortutako materiala biltzeko!”.

“Etxealditik Euskaraldira” ariketen egutegia

■ Apirilak 23: hausnarketa fasea. Norberak bere hizkuntza-ohiturei buruz hausnartze-ko ariketa erraza.

■ Apirilak 24-30: hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketak. Egunerokotasunean oinarrituriko zazpi ideia-proposamen, egunero bat.

■ Maiatzak 3: Euskal Herri mailako amaiera ekitaldia.



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Zelaiak garbi behar ditugu

Konfinamendu garaian idaztea egokitu zait. Balkoira atera eta ingurura begira jarri naiz, eta une batez inguruak umez eta gaztez beteta irudikatu ditut. Korrika eta saltoka imajinatu ditut, etxe aurreko zelaian zilipurdika, baloiarekin atzera eta aurrera, udaberriko loreak hartzen... Eta helduak ere imajinatu ditut belarretan eserita tertulian, garagardo batzuk hartzen, belarraren gainean hanka hutsik, mantak zabaldu eta bazkaltzen, meriendatzen edo afaltzen, banaka, bosnaka edo hama-bosnaka.

Ez dakit zergatik, baina kalera ateratze hori zelaian imajinatu dut; hainbeste egun etxe barruan egon ondoren, hormigoia eta harria baino erakargarriago egiten zaizkit belarra eta lurra, denok gusturago hartuko dugula iruditzen zait. Udaberriko belar berdeak arnas garbiago eskainiko digula eta aire librean gaudenaren sentsazioa handiagoa izango dela.

Baina nire imajinazioa tustustean bertan behera erori zait. Laino beltz bat etorri balitz bezala. Ikusi dudanak irudi eder hori itsusitu dit. Pareko etxekeo bizilagun bat etxera sartzera zihoan bi



"Nahi dudana da konfinamenduaren ondoren, gu eta umeak ateratzen garenean, zelaian txakurrak ibili diren bezala ibiltzeko aukera izatea".

AINHOA AZPIROTZ
"Orain, konfinamenduan txakurren txanda da, gero gure txanda izan behar du, eta zelaiak garbi behar ditugu"

txakurrekin eta horietako batek kaka egin du etxe aurreko zelaian. Jabeak ezikusiarrena egin eta etxera sartu da bi txakurrekin. Ondorioa: txakur kaka zelaian geratu da. Bigarren ondorioa: ume edo heldu bati zelaira joatea bururatzen bazaio, kaka zapaldu dezake. Hirugarren ondorioa: umei ez zaie zelaira joaten uzten eta helduek ez dute belarra zapaldu ere egiten "minatuta" egon

daitekeelako. Laugarren ondorioa: zelaiak txakurrentzat dira. Bada ez, ez luke horrela izan behar.

Konfinamendu garaian txakurrak hor dabilza inguruko zelaietan. Ateratzeko baimena eman zaie, eta inbidia ematen dute, hori hala da, bai beraiek eta bai haien aitzakian atera daitezkeen jabeek. Ez diet aukera hori kendu edo ukatu nahi, ez noa eztabaida horretan sartzera. Nahi dudana da gero, gu eta umeak ateratzen garenean, beraiek ibili diren bezala ibiltzeko aukera izatea. Txakurrak bezala ibiltzea gu ere zelaian zilipurdika, atzera eta aurrera hanka hutsik, lasai. Eta horretarako, txakur kakarik gabeko zelaiak

behar ditugu. Orain, konfinamenduan txakurren txanda da, gero gure txanda izan behar du, eta zelaiak garbi nahi ditugu. Hori da aldarrikatzen dudana.

Beraz, mezu bikoitza luzatu nahiko nuke. Bata txakurren jabeek; mesedez, jaso itzazue zuen txakurren kakak. Bada-kigu batzuk egiten duzuela eta horrela jarrai dezazuen nahi dugu. Beste batzuk, berriaz, hasi zaitezte behingoz beste herritarrek bezala jokatzeko. Errespetuagatik.

Eta bigarren deia Udalariei nahiko nioke: mesedez, bermatu konfinamenduaren ondoren herriko zelaiak eta belardiak txakur kakarik gabe egongo direla. Agian garbiketa berezi bat egin beharko da, belarra moztu... ez dakit nik zer. Artzabalgo zelaiak, Errekatikiko errekarren ingurua, Bizkarreko zelaia, kiroldegia eta ikastola aurreko belardia, San Estebango parkea... herrian ditugun berdeguneak umeentzat, gazteentzat eta helduentzat prest eduki behar ditugu konfinamendua bukatu ondoren bertan lasai esertzeko, etzateko, korrika ibiltzeko edo bakoitzak nahi duena egiteko. Itxialdian txakurren txanda izan da, gero gure txanda izan behar du. Behar dugu.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregerai Martija

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Eta zuk, nola daramazu konfinamendua?

Hilabete t'erdi pasa da konfinamendua ezarri zenetik. Bakoitzak ahal duen moduan bizi du itxialdia. Honakoan, Usurbilgo Artixtak "Sortuz bakardadea isolatuz" ekimenean parte hartu duten batzuen iritziak batu ditugu.

Maider Alzaga

"Okerrena, lana eten zaidala. Oraintxe udako kolekzioak loratu berritan etxean nago eta ezin inori erakutsi! Lan egiteko alternatiba batzuk bilatzen nabil. Adibidez, nire burua mode-

lo bezala jarri eta nire senarrak eskuko telefonoarekin argazkiak atera...". Konfinamenduak behartuta, Maider Alzagak baliabide berriak bilatu behar izan ditu. "Konfinamendutik asko ikasi dezakegula iruditzen zait, ikuspegi positibotik begiratzen badiogu behintzat. Azkarregi doan sistema batean gaude eta pausatxo hau nondik gatozen eta nora goazen pentsatzeko ikaragarri ona dela uste dut, geldialdi bat izan beharrean bultzakada bat bezala hartu behar genuke".



"Azkarregi doa sistema hau eta pausatxo hau nondik gatozen eta nora goazen pentsatzeko ikaragarri ona dela uste dut", esan digu Maider Alzagak.



Ixaak Arruti: "Guk etxean ondo daramagu"

Zaila den arren, saiatzten gara imaginazioa landu eta gauzak egiten. Adibidez, aste batzuk daramatzagu 19:00ak aldera atarira atera eta bizilagunekin abesti batzuk kantatzen eta abar...



Maddi Egizabal: "Egoera guztiz pribilegiatua da nirea"

Oraingoz ez gara ez ni ez familiako kiderik gaixotu, eta ez zaigu ezer falta etxean eroso egon ahal izateko... Konfinamendua familiako kideekin berriz ere konektatzeko aprobetxatzen ari naiz.



Azpiazu Zubeldia anai arrebak: "Etxean festa giroa da nagusi"

Gure etxean festa giroa da nagusi gehienetan. Auzokideekin ere harremana sendotu dugu konfinamendu garai honetan, iluntzeetan eginiko elkarretaratze eta girotzealdiei esker.



Ione Iruretagoiena, erritmoa mantsotzearen alde

Uste dut oso ondo etorriko zai-gula noizean behin bizi-erritmoa mantsotu eta familiarik egoteko denbora hartzea. Denok film bat ikusi, kirola egin edo karta partida bat jokatzeko.



Iñigo Sasiain: "Ondo daramat itxialdia"

Nahiz eta denok bezala, batzuetan animoz baju egon. Nire errutina hartu dut eta unibertsiteko lanak egiten, oposaketetarako unitate didaktikoa garatzen eta nire proiektu txikiekin lanean jarduten dut egunaren zati handienean.



Ugaitz Agirre, gauzak beste era batera ikusteko beharraz

Inoiz imajinatuko ez genituen mugak jarri dizkigutenean, gauzak beste era batera ikusteko beharra sentitu dugu. Balkoietan ikus daitezkeen jarrera positiboak, whatsapp bidez-eta jasotzen ditugun bideo imajinatiboak edota Artixten ekimena bera.



Antton Aranburu: "Batzuetan orduak falta zaizkit!"

Ondo daramat, goizetan etxetik klaseak ematen ditut (irakaslea naiz DBHn) eta arratsaldetan badut nahikoa zeregin. Tartean disko berri bat prestatzen gabilta Mihise taldearekin. Batzuetan orduak falta egunaren bukaeran!



Olatz Allur: "Lehen ezinezkoak ziren planak egiten ari gara"

Lagunak eta senitartekoak ezin ikustea da dudarik gabe okerrena. Honen guztiaren alderik onena, lehen ezinezkoak ziren planak egiten ari garela; familia osoa sofán pelikula bat ikusten, esaterako.



Maddi Zuloaga: “Gauza mordoxxka ikasi ditzakegu”

Pentsatzen nuena baino askoz hobeto daramat konfinamendua. Bizitzak ematen dituen aldaketak aprobetxatuz, gauza berriak ikasten eta nahikoa lasai. Baina ez nuke nahi egoera hau asko luzatzerik.



Eneida eta Eneka: “Alde onik badu konfinamenduak”

Lagun eta familia giroan egoteko liskarrak ekiditen saiatu eta dena hobeto eramaten saiatuko garela uste dugu. Eta bes-tetik, sozialki zein ekonomiki sortu duen kontzientzia hori, nolabait esatearren.



Mikel Alkorta: “Ea laster ematen diogun buelta honi”

Kontzertuak bertan behera geratzen ari direla ikusteak pena ematen du. Ea laster ematen diogun buelta honi. Alde positiboa badauka, etxeko goxotasunaz gehiago gozatzeko aukera daukagu.



Aroa Etxeburua: “Orokorrean ondo nagoela esango nuke”

Barrura begira jarri gaitu birusak eta hori aprobetxatuko bagenu, berreskura ditzakegu bizi garen mundu kapitalista eta kontsumista honen erritmo azkar horretan bizirauteagatik ahaztuak genituen zenbait altxor.



Irati Ibargoien: “Arraroa da egoera”

Gure lana guztiz presentziala denez inpotentzia ere sentitzen dut, badakidalako hainbat pazientek behar handia dutela gure saioak jasotzeko baina egoera honen aurrean, eta inolako babesik gabe, ezin dugu lan presentzialik gauzatu.



Ainara Urdanpilleta: “Alde on pila ikusten ditut”

Ondoan genituen gauzei eta pertsoneri dagokien balioa ematea, elkarbizitzan sendo eta lagunkoi izatea, barruko ahuleziak eta baliabide pertsonalak hobeto ezagutzea... Alde on pila ikusten ditut. Norbera indartuago ateratzeko aukera paregabea.



Natali Izagirre: “Etxean ere, mila gauza egin ditzakegu”

Egin ezin izan dugun hori guztia egiteko aprobetxatu behar dugu: etxea txukundu, armaruan garbiketa egin, hizkuntza bat ikasi, instrumentu bat jo... Orain da unea hori guztia egiteko eta batez ere familiarekin egoteko.



Agara Agirre: “Jendea elkartzen ari dela esango nuke”

Askatasun-eza daramat okerrren. Bestalde, ekimen politikari dira sortzen: partehartzailerak eta nolabait batzen gaituztenak. Denbora gehiago dugu lagunekin egoteko, birtualki bada ere. Jendea elkartzen ari dela esango nuke.

Ibai Arrieta argazkilaria: “Tokatu zait zenbaiten begirada salataria jasatea”

“Lehen astean kalean lanean ibili behar izan dut itxialdiaren inguruko egoera dokumentatzen”, azaldu digu Ibai Arrieta argazkilaria. “Oso arraroa izan da denak etxean zirela kalean lanean aritzea. Tokatu zait poliziarri lanean ari naizela esplikatzeko eta etxeetatik zenbaiten begirada salataria jasatea. Eta garrantzitsuena, segurtasun neurri zorrotzak jarraitzea kutsaketa posibleak ekiditeko”.

Orain etxean lasaiago da goenetik, “etxean behartuta egotean gogoratzen zara, kartzeletan daudenez, jaio-terria utzi eta errefuxiatu



kanpalekuetan daudenez edo birusarekin kontaktuan egunerok lanean diren erizain, sendagile, dendari eta gainerrako langileez. Zenbait etxeetako egoera gogorra izango bada ere, nere kasuan eguna oso azkar pasatzen zait batetako eta besteko zereginekin”.

Jai ibiltaria



Haurren Eguneako kalejirak jarraipen zabala izan zuen. Konfinamendu garaian umeak egiten ari diren ahalegina publikoki eskertzeko, Udalak festa ibiltari bat antolatu zuen herriko talde eta eragile ez-

berdinekin elkarlanean. Ibai Arrieta, Susana Martin, Yolanda Arrieta, Betisa Carrasco, Zirimara, NOAUA! eta Usurbilgo Artixtek hartu zuten parte, besteak beste. Argazkia: Xingola Usurbil.

Ibon Alberdi: “Katekesi jaia maiatzetik urrira atzeratu da”

Martxoaren erdialdetik hona ez da ospakizunik egiten elizetan. Gauza bera gertatu zen Aste Santuko hitzorduekin ere. “Konfinamendua dela garrantzitsuena ulertu dugu eta horren arabera jokatu”, Ibon Alberdi Andatzazpi Pastoral Barrutiko Apaizak adierazi digunez. “Erabaki honek aldaketa asko ekarri ditu: Parrokiako Pastoral urtea bukatutzat ematea, Katekesi jaia maiatzetik urriaren 25era atzeratzea...”.



“Konfinamendua dela garrantzitsuena ulertu dugu eta horren arabera jokatu”. Argazkia: Txintzarri.

NOAUA! Ospakizun eta ekin-tza guztiak bertan behera utzi behar izan dituzue Aste Santuan. Eliztarrentzat ez ziren egun errazak izango ezta?

Ibon Alberdi. Bai, horrela da. Ez dugu gustukoa izan ekintzak bertan behera utzi behar izana, baina gauzak nola dauden ikusita egin genezakeen onena dela baloratu genuen, nahiz eta horrek ia dena atzeratzea dakarren. Gure lehentasuna birkokatu dugu. Etxean egoitea edo konfinamendua dela garrantzitsuena ulertu dugu

IBON ALBERDI

“Parrokiako Pastoral urtea bukatutzat ematea, Katekesi jaia maiatzetik urriaren 25era atzeratzea... Gainerakoek bezala, gauza asko mugitu behar izan ditugu”

eta horren arabera jokatu. Gizarte osoak birkokatu ditu bere ekintza guztiak. Andatzazpi Pastoral Barrutiak (Usurbil, Aginaga eta Lasarte-Oriako parrokiak) martxoaren 12an itxi

zituen bere elizak eta pastoral guneak. Horrek martxan genuen guztia atzeratzea suposatzen bazuen ere, eta egoera ikusirik, ez genuen ekintzei berriro heltzeko egunik aurreikusit. Erabaki honek aldaketa asko ekarri ditu: Parrokiako Pastoral urtea bukatutzat ematea, Katekesi jaia maiatzetik urriaren 25era atzeratzea... Gainerakoek bezala, gauza asko mugitu behar izan ditugu eta egoera berrira egokitu. Esan bezala, egin behar genuena egin dugulakoan gaude.

“Oso gogorra da ezin agurtzea, nahi bezala, maite dugun pertsona”

NOAUA! Hileta elizkizunak debekatu egin dira. Oso gogorra behar du izan, etxeko bat hil eta ezin agurtzea ezta?

Ibon Alberdi. Errealitate oso gogorra da bai, ezin agurtzea nahi bezala maite dugun pertsona. Badakit, elkarrizketa hau egin aurretik, Usurbilen pertsona bat hil dela, kristau-elkarte honen gertutasun guztia bere senide eta gertukoei. Irudikatu hildakoak biziko zuen egoera, bere azken ordua izan daitekeela jakin eta ezin bere

barrua inorekin hustu, berak bakardadean pasa behar une latz hauek, ezin agurtu behar bezala maite dituenak, ezin dolua arintzen lagun dezakeen elkartzea gauzatu, azken hatsa soseguz emateko zailtasun gehigarriak giza maitasuna nahi eta behar bezalakoa ezin delako izan; hau da, berak bere baitan, dituen giza baloreen eta duen fedearen baitan aurkitu behar sosegu hori... Bestalde, hildakoaren senide eta lagunak, hauek ere ezin nahi

eta behar bezala agurtu senide maitea. Esan bezala, ez azken unean, ezta ospakizunean ezta lur emateko unean ere. Agurra egin daiteke, baina oso neurtua dago. Hiru senitarteko eta agurra zuzentzen duena baino ezin dute egon une horretan.

Ezin da nahi bezala egin, edozein dela ere beraien sinismena. Honek guztiak, jakina, askoz gogorrago bihurtzen du berez nahikoa gogorra den agurra eta dolua zailtzen du.

“Baztertuak direnak, gizarteratu ditzagun guztion artean”

NOAUA! Konfinamendua hasi zenean, herritar sare bat osatu zen Usurbilen. Nabarmen-tzeko moduko ekimena, ezta? Ibon Alberdi. Lehen esan dudan bezala, Andatzazpi Pastoral Barrutiak bere pastoral ekintza guztiak martxoaren 12an atzeratu zituen epe-mugarik jarri gabe. Martxoaren 14an, kristau-elkarteak, konturaturik egon bazeudela zailtasunak zituzten pertsonak barrutian (adinekoak, zailtasun ekonomikodunak, gaixoak eta abar) baldintzarik gabeko telefono-laguntza ezarri zuen martxan (943361239).

Martxoaren 15ean Udalak herritar sarea ekimena plazaratu zuen, orduan, ikusirik laguntza bermatua zegoela, laguntzeko prest zeudenei udaletxeko zerbitzuetara jotzeko deia luzatu genien. Martxoaren 23an Caritas, Eusko Jaurlaritza eta elkarte ezberdinak elkartzurik herritarren sarea zabaltu zuten, bertan ere izena eman genuen hainbatek era pertsonalean.

Nire iritziz, arazoa ez da eskaintzaren protagonismoa nork duen, arduratu behar gaituena beharrez dagoen pertsona da, ez instituzioaren edo elkarte ezberdinen protagonismoa:

-Etxerik edo egoitzarik ez eta kalean bizi direnak.

-Erroldatuak ez daudenak, “ilegalak”, laguntza ofizialik eskatzerik ez dutenak. Hauek dira, batez ere, gure gertutasuna, laguntza eta gizarteratzea behar dutenak. Baztertuak direnak, gizarteratu ditzagula guztion artean. Beraien duintasuna aitortua izan dadila, ez hitzez bakarrik, baita ekintzen bidez ere.

PD: Elkarrizketa Aste Santu bezperan egin genuen eta noaia.eus web orrialdean duzue osorik irakurgai.

Erraustegiaren aurkako sirena-hotsak

COVID-19-agatik soilik ez, kea dariola martxan duten Zubietako erraustegiagatik ere osasun larrialdi egoeran garelako oroitarazi eta protesta egiteko sirena hotsak entzun ditugu maiz hilabete hasieratik. Hasieran egunero eguerdiko 12:00etan. Aurrerantzean asteburu eta jai egunetan edota “erraustegiko labeak jardunean ari diren egunetan” piztuko dira. Azken kasu honetan, “goizeko lehen orduan argazki bat bidaliko da eguneko informazio oharrarekin batera”.

Era honetan herritarrak kontzientziatu nahi dira, “zer nolako arriskua dakarren honek euren bizitza eta osasunari begira”. Gogorazten dutenez, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera 1,6 milioi pertsona hiltzen da urtero munduan kutsaduragatik. Zientziaren alorreko txostenek salatu eta egiazaturikoa ekarri dute gogora. “Erraustegiak Kutsatzaile Organiko Jarraikiak isuriko dituela eta beste substantzia oso toxikoak ere bai, minbizi eta



Ekimen honekin herritarrak kontzientziatu nahi dira.

SIRENA-HOTSAK

Asteburu eta jai egunetan edota “erraustegiko labeak jardunean ari diren egunetan” piztuko dira: eguerdiko 12:00etan

mutazio sorrarazleak eta giza ugalkortasunari eragiten diotena. Dioxinei dagokienez, isurtze mugak ezarriko diren arren, hiru hilabetean sei ordutan baino ez dira neurtuko, urtean 24 orduz bakarrik. Gainera, neurketa enpresa kontzesiodunak egingo du, ez administrazioak, eta inoiz ez gehien isurtzen den

epealdietan (funtzionamendu anomaloa, pizte eta itzaltzetan)”.
Zaldibarko zabortegitik erraustegira
 Hori gutxi ez eta “legez kanpo, Zaldibarko zabortegian isurtzen ziren industria-hondakinak eta beste batzuk Gipuzkoako erraustegian erretzeko asmoa dago”. Egoera honen aurrean sirena hotsekin, herritarrak kontzientziatu eta hondakinak kudeatzeko politika publikoak ingurumen jasangarri eta ekonomia zirkularrerantz eraldatzea galdegiten dute.

Bloke Gorria eratu du Aztarririkak

Konfinamendu garairako formazio zikloa antolatu du Aztarririkak Gazte Asanbladak. Maiatzaren 1eko Langileen Eguna arte luzatuko den Bloke Gorria eratu du. Astero gai ezberdin bat proposatzen ari da gazte asanblada; langileen borroka Euskal Herrian, desobediencia zibila edota gazte prekaritateak. Aste honetan esaterako, apustu etxean gaiari heldu diote. Eta apirilaren 27tik 30era, borroka astea iragarri du Aztarririkak. Maiatzaren 1eko Langileen Egunean borobilduko du zikloa.

Asteroko dinamika hiru hitzordu izango ditu: gaiari lotutako bideo laburra plazaratuko dute astelehenera; gai berari



Apirilaren 27tik 30era, borroka astea iragarri du Aztarririkak. Maiatzaren 1eko Langileen Egunean borobilduko du zikloa.

buruzko testua asteazkenetan; eta ostiraletan dokumentala proiektatuko dute 21:30ean. Horrekin batera, “drive bidezko liburutegi bat ere egongo da!”.

Astero gai bat hizpide

Aztarririkatik aditzera eman du-

tenez, “Bloke Gorria deiturikoan, maiatzaren 1era bitarte astero gai ezberdinen inguruan formatzeko aukera eskainiko dugu, drive ireki baten bitartez”.

Xehetasun gehiagorako: [instagram.com/aztarririkak](https://www.instagram.com/aztarririkak)



San Isidro eguneko ospakizunik ez da egingo aurten

Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak eman du erabakiaren berri. Aurten ez da San Isidro eguna ospatuko. Datorren urtekoa gogo handiagoz prestatuko dutela jakinarazi dute prentsa-ohar bidez. “Bizitza tokatu zaigun egoera berri honetan, eta nahiz eta denbora pasatzen utzita ere egoera ez denez konpontzen, Usurbilgo Udalak eta Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba Elkarteak antolatzen dugun San Isidro eguna bertan behera geratuko da aurten.”

Irrikitan gaude datorren urtean berriro itzuliko den San Isidro eguna ospatzeko, eta oraindik ere gogo handiagoz prestatuko dugu”.

Usurbil K.E.-ren zozketa

Martxoko errifan zozketako zenbaki saritua 7.824 izan da. Errifaren jabeari bi lagunentzako otordua egokitu zaio Aginaga Sagardotegian.

Emakumeak Master Cupeko pilotariak

Kirolariak ere ezin etxetik atara dabilta. Ezin entrenatzera joan, ezin lehiatu. Osasun alertaren ondorioz, Emakume Master Cup txapelketako finala atzeratu egin behar izan dute. “Ez dakigu noiz, baina jokatu da. Eta bueltatzen garenean kristoren ikuskizuna eskainiko dugu. Gutxi barru pilotalekuan ikusiko gara”.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukualdea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukualde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukualdea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukualde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukualdea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa:

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

205.000 euro. Tel. 629 631 838 :

Alokairuan

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoa 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure dela horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsusak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua.

651 197 381 / 632 138 393

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negozioagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaz-

tea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuok deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi

osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863


Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona hel-



Zorionak eta urte askotarako ibai!
Ondo pasa etxeko goxotan! 3 muxu eta besarkada erraldoi bat!



Zorionak Eneko!
8 urte bete dituzu!
Ondo pasa zure egunean! Muxu handi bat etxekoan partetik.



Zorionak Egoi!
3 urte bete dituzu,
muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Izaro!
Apirilaren 23an 8 urte bete dituzu, muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Olaia!
12 urte bete zenituen apirilaren 9an. Muxu handi bat lagunen eta familaren partez!



Zorionak Jare! 4 urte beteko dituzu, ze handia egiten ari zaren!! Pila maite zaitugu!



Zorionak Mare!
Laster ospatuko dugu lagunekin eta familiarekin. Muxu handi bat.



Zorionak Eider eta Aratz!
Zuen egun handia ondo ondo ospatuko zenutelakoan... Muxu pilo bat zuen familia guztiaren partetik.



duak zaintzen, arratsaldetan edo gauetan. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, dei-

tu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan

egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil

arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko. Erreferentziak. Esperientzia. 688774180.

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinara Japoniarra (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuek... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunekeo Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Heriotzak

Jose Ramon

Ibarguren

Arrillaga

Apirilaren 2an hil zen 70 urterekin



Heriotzak

Juan Jose

Iceta

Peñagaricano

Apirilaren 7an hil zen 85 urterekin



Heriotzak

Antonio

Urdangarin

Oliden

Apirilaren 12an hil zen 88 urterekin



Heriotzak

Natalia

Etxeberria

Uranga

Apirilaren 21ean hil zen 91 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 23 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 24 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Apirilak 23 - Maiatzak 03

Osteguna 30 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 02 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 03 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

URRUTIA-MARTIN Etxeberri auzoa, 1. Florida 943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda

apirila

24 ostirala

- Esther Arrojeria 'Sortuz, bakardadea isolatuz' ekimenean. 19:00etan, *Usurbilgo artixtak* Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

25 larunbata

- Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa 12:00etan.
- Elene Alustiza 'Sortuz, bakardadea isolatuz' ekimenean. 19:00etan, *Usurbilgo artixtak* Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

26 igandea

- Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa 12:00etan.

Usurbilgo Artixten oholtza birtualean, sormena borborka

Ixtialdia atseginagoa eta eraikitzaileagoa suertatzeko, "Sortuz, bakardadea isolatuz" herri ekimena abiarazi zuten Usurbilgo Artixtek. Sortzaileen emaria amaigabea da. Hauxe asteburu honetako agenda:

Apirilak 23 osteguna

- 19:00etan, Luken Arkarazoren kontzertua.

Apirilak 24 ostirala

- 19:00etan, Esther Arrojeriari elkarrizketa.

Apirilak 25 larunbata

- 19:00etan, Elene Alustizaren kontzertua.

Emanaldi hauek sare sozial hauen bitartez jarraitu ahal izango duzue:

- Facebook *Usurbilgo artixtak* orrialdean.



Itoiz taldearen 'Elurretan' kantaren bertsioa partekatu zuten aurreko asteburuan. NOAUAren web orrialdean duzue ikusgai.

- Instagram @sortuzbakardadeaisolatuz helbidean.

Itoizen bertsioak, 1.000 ikustalditik gora Zuzeneko emanaldiez gain, bestelako ekimenak ere sustatu dituzte. Azkena, Itoizen 'Elurretan' kantaren bertsioa. Hainbat gazteren artean moldatua, bideoak 1.000 ikustalditik gora izan zituen lehen egunean. Hauxe esteka: noaua.eus/bideoak/

Udajolasen izen-ematea zabaltzear da

Uztailean Udajolas antolatzeke moduan izango dira Udala eta NOAUA!. Aurrerago ikusiko da horretarako baldintza egokirik dagoen ala ez. Badaezpada, izen-ematea martxan jartzea adostu da. Konfinamenduak eraginda, izen-ematea telematikoa izango da aurten. Laster emango ditugu

xehetasun gehiago.

Lan-poltsa osatzeko deialdia

Udajolaserako zuzendaria eta begiraleak behar dira, uztailean lan egiteko. Interesatuek bidali curriculumak ondoko helbidera: elkarte@noaua.eus

Kontuan hartzekoak

Haur Eskolan matrikulatzeko garaia

2018-20 urte artean jaiotako haurrei zuzenduriko 2020-21 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dute apirilaren 30era arte. Urtero garai honetan egin ohi duten ate irekien eguna noiz izango den "aurrerago zehaztuko da".

Ikasturtea hasita Haur Eskolaren beharra izan dezakeenari "matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu", nabarmendu dute Udaregi ikastolatik.

Haur Eskolak irailetik uztaileira eskaintzen du zerbitzua, astelehenetik ostiralera, 7:30-16:30 artean.

Informazio gehiagorako:

943 374 061
haureskola@udarregi.eus
udarregi.eus

Errigoraren banaketa

Oliba-olioa, arroza, pasta eta kontserbak eskatuak dituztenek itxaron beharko dute. "Tamalez, koronabirusaren eraginez sortu den egoera honetan, ez dugu jakiterik noiz izango garen banaketa egiteko moduan. Bitartean, animo guztioi eta segi bizkor!", ohartarazi du Errigorak.



Etxealditik EUSKARALDIRA

Ohitura aldaketa etxetik hasten da



 @euskaraldia
 @belarripest / @ahobizi
 www.euskaraldia.eus/etxealdia

Noaualk
 Udajolas-erako
 lan-poltsa osatzeko, zuzendaria eta
 begiraleak behar ditu,
 uztailean lan egiteko.

PROFILA:

2 hilabeteko esperientzia
 Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua
 EGA edo baliokidea den agiria
 Sexu delitua egiteagatik aurrekari
 penalak ez dituela egiaztatzen
 Usurbildarrek lehentasuna

Interesatuak:
 Curriculum-ak ekarri edo bidali:
 Noaua! Kultur Elkarte
 Bordaberri 3, Usurbil edo
 elkarte@noaua.eus

Curriculum-a bidaltzeko azken eguna: maiatzak 10




#Etxealditik

EUSKARALDIRA

Usurbilen

Apirilaren 20tik maiatzaren 3ra

Eman kolorea puntuari eta jarri leiho edo balkoian.

Jarraitu

www.usurbil.euskaraldia.eus

EUSKARALDIA

noova



/EuskaraldiaUsur



@euskaraldiausurbil



@EuskaraldiaUsur



@belarriprest/@ahobizi